

Aparteko aldizkaria

Ate zabaletako jardunaldiaren arrakasta

Pasa den maiatzean, Barrika Barri eta Kirikiño Egoitzek "Barrika Barri eta Kirikiño komunitatean" izeneko jardunaldiaren bigarren edizioa antolatu zuten. Guztira 300 lagunok baino gehiagok parte hartu genuen nagusien baliotasuna agerian jartzeko, zenbait jardueraren garapenaren bitartez. Adibidez, irakurketa erraza, dantzak, sukaldaritza tailerrak, ume, nagusi eta ezinduen arteko jokoak, eta abar. Jardunaldiak arrakasta izugarria izan zuen asistentzia eta partaidetzatik. Ekitaldia ate zabaletako jardunaldia izan zen, bertan, egoitza biek egunez egun beraiekin lan egiten duten erakundeei Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren ekimenak aurkeztu zizkietelarik. Barrika Barri eta Kirikiñoko nagusiek 1.373,27 euro eman zioten EITB 2017ko Maratoiari. Nagusiek beraiek proiektu solidario horri dirua ematea erabaki



zuten. Proiektu honek urtero diruen bilketa sustatzen du gaixotasun baten ikerketari laguntzeko. Kopuru hau iaz garatu ziren zenbait ekimen solidarioen bitartez bildu da, hala nola, azoka solidarioak, bilketak, antzerki onuragarriak, belaunaldien arteko jarduerak, eta abar. Nagusiek eurek eman zioten dirua EITBko erakundeen arteko harremanetarako ardura duna den Maje Saez andereari.

Eskerrik asko guztiei!!!!!!

Barrika Barri eta Kirikiñok, beste batzuen artean, zahartze aktibo eta nagusien bezalako talde eta ezgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonen aldean dauden erakunde eta antolakunde garrantzitsuak gonbidatu zituzten jardunaldira.

Zentzu honetan, ekitaldian parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, bai eta, egunean-egunean egoitzekin lan egiten duten guztiei ere.

Eskerrik asko: Asociación de Familiares de personas enfermas de Alzheimer (AFA), Federación de personas con discapacidad física y/u orgánica de Bizkaia (Fekoor), Lectura Fácil Euskadi, Asociación Uribe Costa,

el Centro Albolarte, Diputación Foral de Bizkaia gestionado, Fekoor, EITB, El Correo, Deia, Gastronomía Baska, Gastronomía Cantábrica, Residencia Olimpia, Residencia Misericordia, Residencia Naguspea, Residencia Aspalidiko, Gaztegune de Txurdinaga, colegio Berriotxoa, colegio Askartza Claret, Colegio San José de Calasanz, Siel, Foro Guztion Artean, Onda Vasca-Nunca Serás Tan Joven, Cae Zurekin Bus, Garbilabel, Asertek Gestion, Logicart, 4 u control, Siel Blue, Médicos Sin Fronteras, Docor Comunicación,

Eskerrik asko guztiei Barrika Barri eta Kirikiñoko langile guztien partetik



Bide Nagusia 7
Barrika 48650
Telf. 94 677 44 77
Fax. 94 677 44 32

barrikabarri@euskoges.com



Torre Gorostizaga 2 y 4 Bilbao 48004
Telf. 94 412 74 00
Fax. 94 411 08 58

kirikino@euskoges.com



Aparteko aldizkaria

Jardunaldiak izugarrizko arrakasta izan zuen komunikabideetan

"Barrika Barri eta Kirikiño komunitatean" izeneko jardunaldiak Bizkaiko komunikabide garrantzitsuen interesa sortu zuen. "El Correo" egunkaria azpimarratu behar dugu, lehenengo orrialdean jardunaldia argitaratu zuelako. Deiak, bere aldetik, erreportaje berezia eraman zuen bere orrialdeetara. Eskerrik asko komunikabide guztiei erantzunagatik. Hemen daukazue adibide batzuk:

EL CORREO
EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO. FUNDADO EN 1910. www.elcorreo.com. VOCES 15

LOCOS POR EUROVISION
500 eurofans españoles presentarán esta noche en Kiev la gala y apoyarán a Manel Navarro. P.79

¿ME PUEDO IR MÁS DE 15 DÍAS DE VACACIONES SI COBRO LA RGI? P.18

Primer caso en Euskadi del juego que incita al suicidio a los adolescentes
Una niña de 14 años de Rentería se hace coites en un brazo en el reto de 'La ballena azul'

PLAN INFANTIL EN UNA RESIDENCIA DE MAYORES P.8

SERVICIOS

España	21
Sin límites	61
El tiempo	86
Historia	89
Agenda	90
Deportes	91

Taller de lectura fácil con miembros de AEA en

Noticias de Bizkaia

Deia

Barrika une integración y envejecimiento activo




JARDUNALDIAREN IKUSTE-BERRIKUSTEA



Jardunaldiaren unerik garrantzitsuena EITBko Maratoiari txekoa ematea izan zen. Asko eskertu zigiten

Irakurketa errazerako tailerrak ere izan genituen. Nagusiek une aberasgarri eta atseginak igaro zituzten.



Jarduera nabarienetakoak belaunaldien arteko olimpiadak izan ziren. Nagusiek eta umeek primeran pasatu zuten.

Dantza dibertigarriak egin genituen ahalmen desberdinetako pertsonekin. Oso ondo pasatu genuen




Atzamarrak miazkatzeko. Nagusiek eta txiek gozogintza tailerra martxan jarri zuten. Guztiak ikasi zuten.

2017 urterako ekimen solidarioak aurkeztu genituen berriro fondoak biltzeko. Nagusiek El bosque de la concordia, Mugarik gabeko medikuak, Inocente Inocente Fundazioa eta Umeak kalean hautatu zituzten.



Orain denbora gutxi SER irratiara joan gara jardunaldiaren jarduera desberdinez hitz egiteko. Gurekin Berrio Otxoa ikastetxeko zuzendaria, Emilio de la Fuente, etorri zen.

Irudian une barregarriak ikus ditzaitezue. Gure nagusiek, musikarekin batera, kate handia egin zuten.



Barrika Barri Egoitzako kanpoaldeak aprobetxatuz, belaunaldien arteko jarduerak garatu genituen. Oso hunkigarria izan zen nagusiak eta umeak elkarrekin dibertitzen ikustea.

Jardunaldia dantza handiarekin amaitu zen, egon ziren guztiak elkarrekin dantzatuz. Urrezko bukaera ikasketaz, begirunez, berdintasunez, maitasunez, olgetaz eta barneraketaz betetako jardunaldirako.

